

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

### Urtean Zeharreko 27. Igandea

2009 Urriak 4 (B urtea)

Patxi Otamendi

Hasiera 2, 18-24

Hebertarrei 2, 9-11

Markos 10, 2-16

- Pasarte honetan dibortzioari buruz lehendabizi farisearrak dira galdera botatzen dutenak. Handik gutxira eszenatik desagertzen dira, eta ondoren ikasleak dira gaiaz galdezka jarraitzen dihardutenak.

Farisearren galderak eztabaida eta liskarra zuen helburu. Edo gutxienez Jesus proba zailtan estutzea. Dibortzioaren zilegitasunaz galdetzen diote, Lege Zaharra noraino ezagutzen duen eta noraino dakien egoera zehaztetara egokitzen. Hain gutxi esaten zuen Lege horrek gai honetaz, ezen onartutako gaia zen. Dibortzioa onargarritzat ematen zen zehaztasun legal handirik gabe. Betiere gizonen esku zegoen aukera bezala.

- Baliteke farisearren proba honetan bestelako “agenda politiko ezkutua egotea”. Ebanjelioan, lehenagoko pasarte ezagutu batean, Joan Bataiatzaileak Herodesi aurpegiratzen dio ez dela zilegi edo legezko bere anaiaren emaztea bereganatu izana. Herodes dibortziatu egin zen (emaztea nabatear printzesa zuen, izenaren berri ez badugu ere). Ondoren Herodes Herodias-ekin bat egiten du. Bataiatzaileak jokabide hori gaitzestegatik Joanek heriotza zigorra jaso zuen Herodesengandik.

Orain farisearrak Jesusi dibortzioaren legaltasunaz galdetzen diote. Joanen jarrera berdina mantentzen bazuen, Herodes aurrean salatua izan zitekeen eta bere bizia arriskuan jarri. Gainera Markos 3:6 pasartean esaten da farisearrek herodiarrekin lankidetzan zenbiltzala Jesus porrota lortu nahian.

- Jesusen erantzuna ez da makala: “Zer agindu zizuen Moisesek **zui**?”. Beraz ez du galdetzen zer agindu **zigun guri**. Honekin ez du Jesusek bere burua ez-judutartzat aurkeztu nahi, baizik bereizketa egin: maila gorenean zaudetenak eta behekoak.
- Senar-emazte izatea batasun sakona bezala agertzen du Jesusek. Zergatik? Gizadiaren hasieratik Jainkoak gizona eta emakumea elkarren erakargarri sortu zituelako. Erakargarritasun horren bitartez biak bat egin nahi dute, sakonki batu. Horri helduz, Jesusek dio bi ezkontide gorputzaren antzeko batasun batean geratzen direla. Gorputza zatitu ahal daiteke kalterik egin gabe? Hortaz, bere ustez gaia ikuspegi legetik haratago doa: ezkontideen izaera elkarbizitza eta maitasuna bitartez bat eginda geratzen da. Hori litzateke Jainkoaren nahi: bi pertsona, norbere izaera bestearekin partekatuz, batasun aberasgarri batean bizitzea.

Baina, egia esan, Jesusen garaian ezkontzak ez ziren gizon eta emakumea arteko maitasuna edo erakargarritasunaren ondorioz. Baizik euren familiak adostasun batera iritsiz bata bestearekin lotzea erabakitzen zutelako, horrela famili bien harremana lotuz.

- Badirudi, Jesusek ez duela sartu nahi zehaztera zer egin behar den ezkontza-bizitzak porrot egitean. Baizik, zertan datza elkarrekiko bizitza eta harremana. Eta zein zentzuzkoa den elkarrekiko lotura eta zerbitzua harik eta sendoen izatea. Jakinik beti ez dela lortzen. Eta ezin denean, zentzuzko litzatekeela batu direnak banantzea beste konponbiderik aurkitu ezean.